



GANADORES DE LOS CONCURSOS DE CUENTOS EN EUSKERA

IPUINAK CATEGORIA LIBRE:

- 1° "Aitona", **Marta Urtasun, Banfield**, pcia de Bs. As.
- 2° "Bizitzak erabakiko du", **María Valeria Aramburu, Gure Etxea, Tandil.**
- 3° "Gure hizkuntza maitea", **Irma Biscaychipy, Unión Vasca, Bahía Blanca.**

CATEGORIA ALUMNO:

- 1° "Eguzkilorea", **María Sol Cicero Moroni, Euskaltzaleak, CABA.**
- 2° "Amaia", **María Amelia de Lasa, Unión Vasca, Bahía Blanca.**
- 3° "Beste putzu bateko apo bat", **Lilian Elosegui, Unión Vasca, Bahía Blanca**

1° "Aitona", **Marta Urtasun, Banfield**, pcia de Bs. As.

Batzuetan, ezin dut erabaki niri ametsetako batzuk egiazkoak diren ala ez.

Batzuetan, "Aitona, aitona", dei alai hori ohiuka egin ondoren, familiaren baraztean aitonaarekin tomateak jaten dituen neskatila bat naiz. Lore gorri txiki-txikiak dituen organdí urdin argi soineko bat daramana. Beste ametsetan, nire hildako aitonaaren kopetatik irteten den odolezko harian errepikatzen da kolorea.

Alferrik errezatu eta agurtu nituen aingeruak... ni babesteari utzi zioten geroxeago.

Mundu batetik mundu bestera bidaia izan zen nire ibildiderik ohiokoenetako bat, "Tximeleta, tximeleta" zen gonbidapenaren giltza; ebokazioa. Baina etsipenez eta ikaraz bizi dut benetako mundua. Amestu nuen guztia pixkanaka ahaztu nuen.

Aitona egun batean agertu zen eta marrubiak jatera eraman ninduen. Orain nire ametsen zirkulartasunak (hiru dimentsiotan, koloreetan eta estereoz) inoiz ez bezala pozten nau. Sartzen eta irteten naiz aterpe ematen didan espazio batean, maite ditudan oroitzapenak helarazten dit eta non ziurtasunak edozein zalantza gainditzeko duen.

2° “Bizitzak erabakiko du”, **María Valeria Aramburu, Gure Etxea, Tandil.**

Itsasertzean elkar agurtu zuten. Mikelek laster elkartuko zirela esan zion baina Pakitak, bihotz sakonean, bazekien hori ezinezkoa izango zela. Arantzazuko Ama Birjinaren medaila atera zuen lepotik Mikeli oparitzeko, ziur zegoen zainduko ziola eta haritz ezkur bat ere eman zion, leku berrira bere herriko zatitxo bat eramateko.

Hogeitahiru urte zeuzkaten eta bizitza osoa aurretik. Pakitari, ama gaixorik geratu zitzaion, aita gerlan galdu zuen. Zapi txuri batez malkoak lehortu ta baserrirantz abiatu zen. Ez zuen itsasontzia urruntzen ikusi nahi.

Mikel itxaropenez beteta, bere bularra airez bete zuen eta dena ondo aterako zela erabaki zuen. Argentinara heldu zen hilabete t'erdi ondoren. Portutik zuzen zuzenean tren geltokira joan zen eta handik Buenos Aireseko herri batera. Beasainen ezagutu zuen gizon batek lana eskaini zion baserri batean eta haren zain geratu zen.

Astelehenetik larunbata eguerdira arte lan egiten zuen. Baserriko nagusiak, herriko euskal-etxera joatera animatu zuen eta dantza taldean parte hartu zuen.

Lehenengo hilabetean, eskutiz bat baino ez zion bidali Pakitari, ondoren, geroz eta denbora gutxiago hartzen zuen idazteko eta azkenean, idazteari utzi zion.

Pakitak, aldiz, astero idazten zion berari eta batzuetan bi edo hiru eskutiz elkarrekin heltzen ziren Mikelen eskuetara. Horrela, Mikelek jakin zuen Pakitaren ama hil zela, baina hau jakin arren, ez zion elkartzeko proposamenik luzatu.

Lan egiten zuen baserriko nagusiaren alaba ezagutu bezain laster, maitemindu zen.

Hilabete batzuk pasa ondoren, Pakita konturatu zen horrelako zerbait gertatzen ari zela, eta nahiz eta traizionatua sentitu, erabaki zuen Mikel ahaztu egingo zuela. Ez zion baimenik eman bere bururari goibel egoteko. Gehiegi maite zuen Mikel, eta

ulertu zuen agian, urruneko leku batean, zorientzua izateko aukera aurkitu zuela. Barkatu egin zion bere bizitzako maitasunari. Mikel ahaztea, ordea, zaila zen, izan ere, berarekin hainbestetan ibilitako txoko guztiak zeharkatzen baitzituen egunero. Pakitari asko gustatzen zitzaion arropa jostea eta oso ondo egiten zuen gainera. Egun osoan lanegiten hasi zen.

Argentinan, Mikel eta Ramona ezkondu egin ziren eta laster, seme-alabak izan zituzten. Udazken eta udaberri asko pasa eta gero, lehen biloba heldu zen eta une hartantxe, Mikel alargun geratu zen. Askotan, haritzaren itzalpean esertzen zen Mikel mateak edatera, eta Pakitaren inguruko pentsamenduak etortzen zitzaizkion burura.

Itsasoko beste aldean, Pakita ospe handiko jostuna bihurtzen ari zen. Beasaingo tren konpainiako langileei arropa guztia josten zien eta laster bi jostun gehiago hartu zituen laguntzaile modura. Zorientzua izaten ikasi zuen. Bikote on batekin familia sortu zuen. Seme bat izan zuten eta hamarkada batzuk beranduago bilobak ere izan zituzten.

XXI. mendea heldu zen. Leire, Mikelen lehenengo biloba, Euskal Herria joan zen euskara ikastera, zehazki, Gipuzkoara. Barnetegiko ikaskideekin, taberna batetik bestera ibiltzen zen ostegunetan. Behin, ikaskide baten lagunak ere elkartu zitzaizkien eta Leire haietako batekin hizketan hasi zen, bizitza osoan ezagutuko balu bezala. Haien artean, zeozer magikoa zegoen.

Leirek moda diseinatzailea zela kontatu zion Patxiri eta berak bere amona ezagutu behar zuela esan zion.

Hurrengo asteburuan, elkarrekin joan ziren Beasainera, amona ezagutzera. Honetaz gain, Patxik Pakitaren tailer zahar eta ospetsua erakutsi nahi zion.

Tailer hartako txoko guztiekin Leire liraturata geratu zen. Patxi harro zegoen bere amonaz eta Pakitaren istorio zati bat partekatu zion neskari. Esan zion, adibidez, oso gaztetan bakarrik geratu zela ama hil eta senargaia Hego Amerikara joan zelako eta hala ere, aurrera atera zela eta enpresa handi hura sortu zuela.

Pakita ezagutzeko geroz eta gogo handiagoa zuen Leirek eta bere etxerantz Patxirekin abiatu zen. Atetik pasa bezain laster, 75 urteko Pakita agertu zen, iribarrez baina bat-batean, Leirek lepoan zintzilik zuen Arantzazuko Ama Birjinaren medaila ikusi eta bihotza geldi-geldi geratu zitzaion. Zalantzarik gabe, medaila hura berea izan zen hamarkada batzuk lehenago. Ordun, Pakitak ulertu zuen bizitzak berari kendu ziona, Patxiri oparitu ziola.

Leirek kontatu zion, bere aitonak Mikel zuela izena eta Ataunen jaio zela. Zoritxarrez, oso gutxi hitz egin zuela bere herriari buruz eta horrexegatik erabaki zuela bere kabuz ezagutzea.

Pakitak, maitasunaz betetako bihotzaz, eskatu zion Leireri, aitonari etxeko beste haritz ezkur bat eramateko. Inoiz ez zion aitortu ez Leireri, ez Patxiri ere, Mikel eta bere artean bizi izan zuten maitasun istorioa.

Hilabete geroago, Leire Argentinara itzuli zen. Aitonari eraman zizkion gauzen artean, Pakitaren haritz ezkurra zegoen. Mikelek isilik geratu zen. Itsasoaren beste aldean Pakitak oraindik hor jarraitzen zuela jakin zuen.

Urte bete pasa ondoren, Leire eta Patxi ezkondu ziren Argentinan. Patxi amonarekin, Leireren zain zegoen elizan. Mikel eta Pakitaren begiak elkar aurkitu ziren berrogeita hamar urte beranduago.

3° “Gure hizkuntza maitea”, **Irma Biscaychipy, Unión Vasca, Bahía Blanca.**

Duela urte batzuk iragarki bat ikusi nuen bizi naizen hiriko egunkari batean: “Euskara eskolak hasiko dira euskal etxean”. Zeren eta aitaren partez euskal odola dut, berehala izena ematea erabaki nuen.

Euskara ikasten hasitakoan, euskal etxeko festa batean jendeak euskal kantak abestu zituen, eta kantatu zuten azken abestia, hunkigarria izan zen. Nahiz eta nik ez nuen ulertu zer zioen letrak, oso melodia polita eta erritmo gozoa iruditu zitzaidan eta sentimendu berezia sentitu nuen. Arimatik konposatzen eta abesten bada, hori sentitzen da, letra ulertzen ez bada ere. Nik behintzat hori uste nuen une hartan. Gainera, melodia ezaguna egiten zitzaidan.

Gero, nire euskara-irakasleari zer zioen letra horrek galdetu nion eta zera azaldu zidan:

-Askatasuna eta jaunari buruzkoa da, pertsona eta animalien arteko kontrola eta errespetua. Erlazionatzeko bi aukera ditugu: gure pertsona maitea txoria bezala kaiola batean lotzea, nahiz eta jada ez izan gehiago liluratzen gaituen txoria; ala den bezala maite dugu, bere borondatea errespetatuz.

Liluratuta geratu nintzen abestiaren letrarekin eta berehala kanta hori nire bizitzako esperientziarekin lotuta zegoela konturatu nintzen. Txikitan landetan bizi nintzen eta han mutilek habailaz harriak botatzen zituzten txoriak hiltzeko. Nik lauzpabost urte izango nituen, eta oso ondo akordatzen naiz.

Denbora pasa eta egun batean etxe batera joan nintzen. Han “tero” izena duen Argentinako txori bat patioan zegoen, txioka eta korrika baina hegan ez. Ezin zuen hegan egin hegoak ebaki zizkiotelako! Momentu hartan pentsatu nuen: “Hegoak ez balizkiote ebaki, alde egingo zuen!”. Horregatik liluratu ninduen abestiaren letrak!

Baina ... zergatik egiten zitzaidan ezaguna melodía? Duela asko, bost urte nituenean, aitonaren etxera joan ginen gurasoak, neba eta laurok. Amona hil

ondoren, aitonak iktusa jasan zuen eta batzuetan bere jaioterrian, Euskal Herrian zegoela uste zuen. Bisitatzera joan ginen egunean oihuka hasi zen, haserre zirudien. Beldurtu nintzen eta izeba Margaritari galdetu nion:

-Zer gertatzen zaio aitonari? Haserre dago? Ez dut ulertzen zer dioen.

-Bere ardiak zaintzen ari da Pirinioetan, txikia zenean artzaina baitzen; garai hartan mendietan otsoak zeuden eta ardiei eraso egiten zieten. Horregatik egiten du oihu. Ez dago zurekin haserre. Orain bere gaixotasunarekin bere ama-hizkuntzan hitz egitera itzuli zen. Horregatik ez duzu ulertzen.

Gero aitona lasaitu eta abesti bat tarareka hasi zen.

Orain badakit aitonak abesten zuen abestia Txoria txori dela. Nik ere badakit zergatik den hain hunkigarria eta zergatik abesten zuen aitonak bere ama-hizkuntzan. Francok euskara erabiltzea debekatu zuen. Ukatutako askatasunari egindako kanta da, Francoren legeen aurkako erresistentzia ekintza bat. Agian ez zen idazlearen helburua, baina euskaldun gehienek txori horren atzean herri bat ikusten zuten, eta dute.

Txoria txoria da; euskara euskara da, betiko gure hizkuntza maitea.

1° “Eguzkilorea”, **María Sol Cicero Moroni, Euskaltzaleak, CABA.**

Han zegoen, oso txikia ematen zuen bere logelako lurrean eserita... Margotzen ari zen baina bere begietan malkoak zeuden. Ez zuenez lagunik oso triste zegoen. Margotu bitartean pentsatzen zuen zer egin ahal zuen. Ezin zuen ulertu zergatik umeak ez ziren berarekin jolastu. Bat-batean malkoa erori zen margolanaren gainean. SINESTEZINA! Margotzen ari zen eguzkilorearen lore-hostoak mugitzen hasi ziren. Momentu horretan gogoratu zuen behin bere amonak esan ziola “triste egoten bazara edo zerbait behar baduzu, zuretzat egongo naiz, eta jada ez banago, pentsatu nigan”. Bihotza taupaka hasi zen, eta irribarre handi-handia sortu zen Anderren aurpegian, bere amonak egia esan ziolako: hor egongo zela berarentzat. 3 urte zituenean amonak irakurri zion Anderri “eguzkilorearen istorioa”, eta berarentzat, zalantzarik gabe, eguzkiloreak magikoak ziren eta egun hortik aurrera, bere zinginarria.

Ander oso haur ona zen eta ez zuen nahi eguzkilorearen istorioa gorde... Orri batzuk hartu zituen eta bakoitzean eguzkilorea margotu zuen. Irudiaren azpian idatzi zuen “zerbait zure indar guztiekin desiratzen baduzu, pentsa ezazu posible ahal da eta egun batean lortuko duzu”. Hurrengo egunean klasera iristean lehenengoa izan zen. Bere ikaskideak heldu zirenean ikasgela eguzkilorearen margolan bezala zegoen, bakoitzak zuen izen bat “Lur”, “Ibai”, “Irti”, “Haizea”, “Ekaitza”... Umeek hartu zuten irudia; begiak itxi zituzten, haien ametsetan pentsatzen ari zirelako. Begiak ireki zituztenean ikusi zuten Anderrek ez zuela irudirik; konturatutakoan galdetu zioten zergatik eta berak erantzun zien “nik egin nituen eguzkiloreak zuentzat, behin amonak esan didalako magikoak zirela eta zuekin partekatu nahi nuelako”.

Ikasle guztiek borobil handi bat egin zuten, besarkatu ziren haien artean eta entzun zuten Anderren hitzak “nire ametsa egia bihurtu zen, orain zuen txanda da; ametseengan sinetsi eta asko maite baduzue norbait, margo ezazu eguzkilorea eta emairozue pertsona horri, eta ametsa-kate bat egiteko”. Anderrek uste zuen bere biziko momenturik onena zela, baina oraindik ez zekien hori hasiera bakarrik zen, oso gauza handiaren hasiera...

2° "Amaia", **María Amelia de Lasa, Unión Vasca, Bahía Blanca.**

Amaia izeneko ume txiki batek ipuin bat kontatzeko eskatu zion bere amonaxori. Beti bezala bere amona oso pozik hasi zuen:

“Behin batean herri bateko igelak bildu ziren lehiaketa bat antolatzeke eta herriko dorrerik altuenera igo behar zutela erabaki zuten.

Lehiaketaren eguna eta ordua ezarri zituzten: hurrengo igandean arratsaldeko hiruretan izango zela. Egun eta ordu horretan igel asko prest zeuden eta jende askok ikusi nahi zuen.

Igel zaharrenak zenbatu zuen: bat, bi, hiru eta igelek korrika hasi ziren.

Ikusleek ohiukatu egin zuten: Gora ... gora! Askar ... askarrago! Goazen!

Goazen gogor!

Baina gertatu izan zen minutu geroago igel batzuk nekatzen hasi zirela, beste batzuk oso poliki igotzen hasi zirela. Horregatik publikoa haserretu zen eta bere kantauak aldatu zituen: Ez dute indarririk! Ez dakite salto egin! Ezin dira igo!

Nolanahi ere, igel txiki bakar batek igotzen jarraitu zuen eta tontorrera iritsi zen; jendea harrিতa geratu zen. Txapelduna jaitsi zenean denek bera inguratu dute eta txalotu diote.”

Hala bazan edo ez bazan sartu dadila kalabazan.

Amaia maitea, nik sekretu bat kontatzeko daukat: igel txapelduna gorra zen.

Horregatik ez zituen jendearen oihuak entzun eta lasai igotzen jarraitu zuen.

Batzuetan ona da besteen iritziek ez uztea zure helburua lortzea eragotzen.

3° “Beste putzu bateko apo bat”, **Lilian Elosegui, Unión Vasca, Bahía Blanca**

Bazen behin apo argal bat aintzira batean bizi zena. Aintzira horretan Apoa beste putzu bateko apo bat bezala sentitzen zen; nolana ere, oso alaia eta saltokaria zen.

Ilbeteko gauetan isiltasun handia zegoen eta, gainera, janari asko zuen Apoak; hori asko gustatzen zitzaion. Txiltxirren abestiek bakarrik hausten zuten isiltasuna edo auzokoek korroka egiten zutenean.

Eguzki zegoen bitartean, Apoak putzutzoko hozkirritan lo egiten zuen. Lo egin eta gero, kanpora irteten zen janaria hartzera.

Baina egun batean emakume batek bere eskuetan hartu zuen Apoa eta muxuak eman zizkion; ere hitz politikak esan zizkion:

- Zure hankak oso politikak dira eta zure begi horiak loreak bezalakoak dira; baina zure sabela zikin dago; zure lekua ez da hau.

Asko pentsatu ondoren, Apoa ados egon zen emakumearekin; konturatu zen hori ez zela bere aintzira ezta bere putzua ere. Berehala bilaketa hasi zuen: galdetu eta galdetu zuen ea zein den bere lekua, zein den bidea, eta ibiltzen hasi zen. Oso bide luzea hartu zuen eta denbora luzez ibili zen.

Egun batean bere hankak erre zitzaizkion lurra beroa zegoelako eta hurrengo egunean iraleku gainean ibili zen.

Bat-batean bere jaioterrira iritsi zen! Hunkigarri izan arren, konturatu zen han bere zuloa ez zegoela, ezta bere lagunak ere, eta zera esan zion bere buruari:

- Erabaki bat hartu aurretik, ikusi behar dut nolako izan daitekeen nire bizitza hemen; orain paseo bat egingo dut lekua eta hemengo apoak ezagutzeko eta pixka bat pentsatzeko; dirudienez, hemengo gauzak eta ohiturak desberdinak dira.

Gaua heldu zenean bide zaharra hartu zuen eta bere lehengo aintzirara abiatu zen. Bidaian zehar zera pentsatu zuen:

- Alde batetik, bidaia egitean nongoak diren nire jatorriak ikasi nuen; bestetik,

konturatu nintzen zenbat maite ditudan nire lagunak eta nire antzinako putzua. Oraindik aurrera ez naiz sentituko beste putzu bateko apo bat bezala.

Handik aurrera, apoa oso pozik bizi izan zen bere bizitza bukatu arte. Eta ipuin hau amaitu dut nik.